

**SAHARAR HERRIAREKIN LANKIDETZA:
SAHARAR ERREFUXIATUEN KANPAMENTUAK,
BEHAR BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ESKOLETAN
PRACTICUMA 2024-2025.**

Aurkibidea

- | | |
|---|---|
| 1. Proiektua zertan datza. | 2 |
| 2. Saharako historia. | 3 |
| 3. Hilabetez hilabeteko lana, practicuma. | 6 |

1. Proiektua zertan datza.

Proiektu honek saharar errefuxiatuen kanpamentuetan kokatzen diren behar bereziak dauzkaten ikasleen eskoletan laguntza eskeintzea du asmoa. Alde batetik, bertako ikasleekin esku-hartze batzuk aurrera eramanez eta bestalde, bertako irakasle taldearekin formakuntza saio batzuk eginaz.

Astero bost egunez joaten dira ikasle sahararrak **eskolara**, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bata arte. Honen ostean, **irakasle taldearen formakuntzak** eramango dira aurrera, bakoitzak bi ordu bitarteko iraupena izango duelarik. Zeregin hauez gain, eskolan matrikulatuta dauden ikasleen **zentsoa** eguneratzea ere egiten da.

Esan bezala, heziketa bereziko zentro hauetan parte hartzen duten ikasle sahararrak ahalik eta gizarteratuen sentzeko egiten da lan, eta etorkizunean haien autonomiaz egunerokotasunari aurre egiteko gaitasuna izan dezaten. Ondorengo helburuak nabarmentzen dira heziketa bereziko zentroetan:

- Ikasleen autonomia ahalik eta mailarik gorenean garatzea.
- Aniztasun funtzionaleko ikasleak, ikasle sentiaraztea.
- Gainontzeko saharar ikasleen antzera haien eskola ordutegi eta errutina izatea, gazteenen kasuan.
- Ikasleek haien burua baliagarritzat hartzea, helduenen kasuan.
- Bertako ikasleak, gainontzekoekin harremanak eginez, sozializatzen ikastea.
- Ikasleek beharrezko dauzkaten zaintza lanei erantzuna ematea.
- Aniztasun funtzionala saharar gizartean normalizatzea.

2. Saharako historia.

1984. urtean, marokorrek Mendebaldeko Saharan sartu eta saharar herritarrak beraien lurraldetik bota zituzten, horietako batzuk bertatik alde egin zuten, ihesean, eta beste batzuk aldiz ezin izan zuten bertatik atera. Atera ziren horiek, Argeliako lurraldean kanpamentuak sortzeari ekin zioten. Bertako testuinguruan kokatu ahal izateko, gertatu zenaren inguruan eta hauen egoera historikoaren inguruan jakitea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu, beraz, hona hemen historian kokapena.

Kolonizazio garaia (1884)

Afrika, kontinente handi bat den heinean, egoera desberdin asko eman izan dira bertako historian zehar, eta hori horrela izanik, herrialdeak jasan zuen kolonizazioa azaltzea ez da lan erraza. Hala ere, kolonizazio hau azaltzerako garaian, 1885. urtean eman zen Berlingo Konferentzian hitzartu zenaz aritzea beharrezkoa da.

Konferentzia honetan Afrikako herrialdea Europako potentzia kolonialen artean banatu zen. Espainiaren kasuan, Mendebaldeko Sahara haren menpean gelditu zen, Espainiako kolonia batean bilakatu zelarik. Hauek asmatu zuten gaur egun hainbeste entzuten dugun “Saharai” kontzeptua, zeina Saharan bizi ziren tribuetako herritar nomadei deitzeko sortua izan zen hain zuzen ere. Herrialde sahararrak momentu historiko honetan herrialdearen bere erabilera tradizionala egiten jarraitu zuten.

Gainontzeko herrialdeak Britania Handia, Frantzia, Belgika, Italia, Alemania eta Portugalen artean banaturik gelditu ziren. Egoera honakoa izanik, Afrikako lurralde guztia europar herrialdeen botere eta kontrolpean gelditu zen eta honek, komertzio, enpresa, konpainiak etab. Europear herrialdeen nahi eta beharretara bideratzea ekarri zuen. Horretarako, indigenen parte-hartzea alde batera utziz.

Deskolonizazio garaia

XX. hamarkadan, afrikar kontinenteko herrialdeak independentzia lortzen hasi ziren, 1956. urtean Marokok independentzia lortu zuen, Mauritaniak, Malik eta Senegalek 1960. urtean eta Argeliak berriz 1962.ean.

1966. urtean, Nazio Batuetako Erakundeak azaldu zuen nola Mendebaldeko Saharak deskolonizatua izan behar zuen autodeterminaziorako erreferendum baten bidez.

Espainiak ez zuen horrelakorik onartu eta ondorioz, 1969. urte amaieran saharar erresistentzia antolatu zen Bassiri izenez ezaguna den saharar kazetari gazte baten gidaritzapean, hauek “Saharako Askapen Mugimendu Nazionala” sortu zuten.

Honi jarraiki, 1970. Urtean lurralde poliziak “Saharako Askapen Mugimendu Nazionalak” Zamlako herrian kolonia espainiarraren aurka antolaturiko manifestazio batean sahararren aurka erakutsi zuen jarrera desegokia izan zela medio, erresistentzia handitu egin zen eta 1973. urteko maiatzaren 10ean, lehenengo talde armatua sortu zen, Fronte Polisarioa.

Emakumeen egoera

Honek, saharar herriaren egunerokotasunean militarizazio handia ekarri zuen. Militarizazio eta indarkeria armatuak, historian zehar eta munduko txoko desberdinetan, genero rolen bereizketa handitzea ekarri izan du, bai eta emakumeenganako indarkeriaren handitzea ere. Hori horrela, kasu honetan, okupazio eta gerra honek, bertako emakumeen egoera okertzea ekarri zuen.

Asko eta asko izan ziren borroka militarrean parte-hartzen hasi ziren gizonezkoak, emakume gutxi batzuek ere hartu zuten Fronte Polisarioan parte. Beste emakume asko, genero rolen bereizketa tradizionalari dagokion aginduari jarraituz, okupazioaren aurkako borroka klandestinoan mantendu ziren, non lan politiko oso arriskatuak egin behar izan zituzten. Hauetako emakume askoren heriotza ekarri zuen parte-hartze honek eta biziraun zuten emakumeei aldiz, bizitza guztirako arrastoa utzi zien.

Rolen banaketaren ondorioz, lehen aipatu lez, gizonezko gehienek borrokalari bezala parte hartzen dute eta emakumezkoak, neurri handi batean etxean gelditzen dira ala ihes egitera behartuak ikusten dira.

Martxa Berdea

1975. urtean, hasteko, NBEk egin zuen ikerketa batean, Mendebaldeko Saharako herritarren gehiengoa Fronte Polisarioaren aldekoa zela ikusi ahal izan zuen. Hau ikusirik NBEk espainiari “Mendebaldeko Saharari” autodeterminaziorako eskubidea emateko eskatu zion. Gainera, Francisco Franco diktadore espainiarra hil zorian zegoen, eta Espainia berrogei urte iraun zituen diktadura batetik ateratzekotan zen. Hau guztia kontutan hartuz,

Espainia, “Sahara espainiarra” deituriko herrialdea deskolonizatzeko asmotan zegoen.

1976ko otsailaren 26an Espainiak lurraldea utzi zuen eta baita lurraldearekiko zituen betebeharrak ere. Unea aprobetxatuz, Marokoren hegoaldean, Hassan II. erregeak “Martxa Berdea” gisa izendatu zuten martxa baketsua hasi zuen. Martxa hau, 350.000 zibilez eta 30.000 soldaduz osaturik zegoen eta Mendebaldeko Sahara, garai hartan “Sahara espainiarra” zena hartzea zuen helburu.

Lortu zuten Mendebaldeko Sahararaino iristea eta Espainiak, presiopean, lurraldea Maroko eta Mauritaniako estatuen esku utzi zuen. Maroko Mendebaldeko Sahararen iparraldearekin gelditu zen eta Mauritania berriz, hegoaldearekin.

Honekin batera, sahararren exodo masiboa hasi zen. Saharar herriaren zati handi batek desertura egin zuen ihes, Mendebaldeko Saharak Argeliarekin muga egiten duen gunera, Tindufeko eskualdera. Eskualde honetan, Fronte Polisarioak, Argeliako estatuaren laguntzaz, errefuxiatuentzat kanpamentuak antolatu zituen, errefuxiatuen babeserako. Kanpamentu hauek lau probintzian banatu zituzten eta probintzia bakoitza lau edo sei kanpamentutan banatzen zen. Hasiera batean, denboraldi batetarako kanpamentuak izango zirela pentsatu bazuten ere, pixkanaka, antolatuz joan ziren eta iada 40 urte badira sahararren bizileku izateari ekin ziotenetik. Esan beharra dago, laguntza handirik ez zutela jaso kanpamentu hauen antolaketarako eta gehienbat emakumeak izan zirela bertan aritu zirenak, gizonezko gehienak Fronte Polisarioan baitzeuden. Beste saharar batzuk aldiz, Mendebaldeko Saharan gelditu ziren eta Um Draiga, Amgala, Tifariti eta Mahbes inguruetan kanpamentuak antolatu zituzten. Egoera hura izanik, marokoarrek hegazkinak hartu eta kanpamentu hauek bonbardatu zituzten, internazionalki debekaturik zeuden fosforo zuria eta napalma erabili zituzten besteak beste bonbardaketa honetan. Ondorio gisa, hildako eta zauritu asko egon ziren.

3. Hilabetez hilabeteko lana, practicuma.

Atal honetan, lankidetzan programa honetan gauzatu behar izango dituzten bilera, informazio bilketa, talde lan, zeregin eta esku-hartzeak zehaztu dira, hilabetez hilabete.

Iraila: Unibertsitateko ikasleak eta proiektuko koordinatzaileak (instruktoarak) elkar ezagutu eta proiektuaren aurkezpena egingo da.. Saharar historia, kultura, gaur egungo egoera... ezagutzeko hainbat dokumentu eta irakurketa proposatuko zaizkie ikasleei eta denen artean solasaldiak burutuko dira.

Urria: Behar berezien gaia landuko da. Honekin batera, ikasleak Gautena elkartarekin harremanetan jarri beharko dira, autismoaren inguruan ezagutza zabaltzeko. Saharar ikasleekin esku-hartzeak burutu ahal izateko hainbat dinamika eta material diseinatuko dituzte.

Azaroa: Saharar irakasleekin egingo diren formakuntzak diseinatuko dituzte. Errutinak, lehen sorospenak, ikastola baten organigrama eta langile bakoitzaren funtzioak (eskubideak eta betebeharrak), talde dinamikak.

Abendua: Saharar ikasleen zentsoa nola bete erakutsiko zaie, horretarako diseinatuta dagoen galdetegiak jarraituz. Bide batez, saharar ikasleen informazioa jasoko dute, ideia orokor bat izateko. Gainera, saharar ikasle bakoitzak zein lan ildo duen jakingo dute eta horren baitan hainbat ariketa, dinamika eta esku-hartze diseinatuko dituzte instruktoareen aurretiko ezagutza lagungarri izanik.

Urtarrila: Azaroan zehar diseinatu diren formakuntzak instruktoareekin partekatuko dira eta hauen feedback-a jasoko dute.